



EUSKARA BATZORDEA	COMISIÓN DE EUSKERA
DATA: 2014-01-23	FECHA: 23-01-2014
HASTEKO ORDUA: 18:00 BUKAERA ORDUA: 19:40 LEKUA: UDALETXEKO BATZAR ARETOA	HORA DE INICIO: 18:00 HORA DE FINALIZACIÓN: 19:40 LUGAR: SALA DE JUNTAS DEL AYUNTAMIENTO.
AGERTU DIRENAK:	ASISTENTES:
<ul style="list-style-type: none">✓ Maitane Maritorea (BILDUko zinegotzia / <i>Concejal de BILDU</i>)✓ M^a Carmen Iribarren (UPNko zinegotzia / <i>Concejal de UPN</i>)✗ M^a Isabel Olave (UPNko zinegotzia / <i>Concejal de UPN</i>)✗ Maite Iturre (NABAI-2011ko zinegotzia / <i>Concejal de NABAI-2011</i>)✓ Estebe Apezetxe (Bai Euskarari)✗ Elena Arretxea (AEK)✗ Alberto Atxa (Herri Eskolak)✓ M^a Carmen Irungarai (Xorroxin irratia)✗ Julen Mitxeltoena✓ Arantxa Zelaia✓ Edurne Arrieta (San Frantzisko Xabier Ikastetxea)✓ Pello Iriarte✓ Paula Kasares (udaleko euskara teknikaria idazkaritako / <i>técnica municipal de euskera en labores de secretaria</i>)	
GAI-ZERRENDIA: <ol style="list-style-type: none">1. Aitzineko Euskara batzordearen akta onartzea, hala balegokio.2. Udalaren webgune berriaren gaineko informazioa.3. Udalak UEMArekin eta Hizkuntz Eskubideen Behatokiarekin batera abiatuko duen kanpaina osasun arloan.4. 2014ko euskara saileko aurrekontuetarako egitasmo proposamenak.5. Eskoletako aurrematriculazioaren epea eta D ereduaren aldeko lana.6. Udalak Eusko Ikaskuntzarekin duen hitzarmena eta proiektu-proposamenak.7. Galde-eskeak eta nork lekarkeena.	ORDEN DEL DÍA: <ol style="list-style-type: none">1^º <i>Aprobación, en su caso, del acta de la última reunión de la Comisión de Euskera.</i>2^º <i>Información sobre la nueva página web del Ayuntamiento.</i>3^º <i>Campaña para la promoción del uso del euskera en el ámbito de la sanidad que se llevará a cabo con UEMA y el Observatorio de Derechos Lingüísticos.</i>4^º <i>Presupuestos de la Sección municipal de Euskera.</i>5^º <i>Plazo de prematriculación y labor a favor del modelo D.</i>6^º <i>Propuestas de proyecto dentro del convenio de colaboración entre Eusko Ikaskuntza / Sociedad de Estudios Vascos y el Ayuntamiento.</i>7^º <i>Ruegos, preguntas y otras aportaciones.</i>



ERABAKIAK:	ACUERDOS:
<p>1. Aitzineko Euskara batzordearen akta onartzea, hala badagokio Akta onartu da.</p>	<p>1. Aprobación, en su caso, del acta de la última reunión de la Comisión de Euskera. <i>Se aprueba el acta.</i></p>
<p>2. Udalaren webgune berriaren gaineko informazioa. Maitane Maritorea zinegotziak Udalaren webgunea berritu dutela jakinarazi du. Oraindik guztiz akiturik ez badago ere ANIMSAk, informatika zerbitzuaz arduratzen den enpresak, webgunearen antolaketa aldatu du, sail berriak sortu ditu (“Alkateak erantzuten du”, erraterako) eta lehen zeudenei eutsi zaie. Atal bakoitzak, Euskarak ere, bere txokoa izanen du. Euskarari dagokion atalean sailtxo batzuk (deialdiak, euskara batzordearen aktak...) bereizteko asmoa dago eta hemendik aitzina horri ekinen zaio.</p>	<p>2 Información sobre la nueva página web del Ayuntamiento. <i>La concejala Maitane Maritorea informa de que el Ayuntamiento ha renovado su página web. Aunque todavía no está concluida, ANIMSA, la empresa encargada del servicio informático municipal, ya ha modificado la organización de la web creando secciones nuevas (como por ejemplo “La alcaldesa responde”) y manteniendo algunas ya existentes. Cada departamento tendrá su sección, el de Euskera también, y de ahora en adelante en él se abrirán diferentes entradas (por ejemplo, para convocatorias, actas de la Comisión de Euskera...).</i></p>
<p>3. Udalak UEMArekin eta Hizkuntz Eskubideen Behatokiarekin batera abiatuko duen kanpaina osasun arloan. Maitane Maritorea zinegotziak honako informazio hau eman du: urtarrilaren 27an Udalak Hizkuntza Eskubideen Behatokiarekin eta Udallerri Euskaldunen Mankomunitatearekin (UEMArekin) batera prestatu duen kanpaina abiatuko du. Kanpainak otsailaren 28 artio iraunen du. Atzo, ilbeltzaren 23an, Euskara zinegotzia eta teknikaria Elizondoko Osasun etxeko zuzendariarekin, Iñaki Marcosekin, bildu ziren kanpianaren berri emateko eta Baztango osasun arloan euskararen erabilera bermatze aldera elkarlanean aritzeko proposamena helarazteko. Kanpainak familia-medikua eta pediatra euskaldunak eska ditzaten mezua zuzenduko die herritarrei. Horretarako, etxez etxe biorrikoak partituko dira eta Elizondoko Osasun etxean eta Iruritako kontsultategian kutxa batzuk paratuko dira herritarren eskabideen kopia biltzeko. Erabiliko diren biorrikoa eta kartela batzordekideen artean banatu dira. Bideo bat ere egin da, 4 minutukoa, baina batzordekideei erakustea ezinezkoa izan da arazo teknikoak direla eta. Bideoa euskalgintzako kideek zabalduko dute.</p>	<p>3. Campaña para la promoción del uso del euskera en el ámbito de la sanidad que se llevará a cabo con UEMA y el Observatorio de Derechos Lingüísticos. <i>La concejala Maitane Maritorea presenta la campaña que el Ayuntamiento, conjuntamente con la Mancomunidad de Municipios Euskaldunes (UEMA) y el Observatorio de Derechos Lingüísticos (Behatokia) van a llevar a cabo en el sector sanitario para garantizar las oportunidades de uso del euskera. La campaña se iniciará el 27 de enero y concluirá el 28 de febrero. En el día de ayer, la concejala de Euskera y la técnica se reunieron con el director del Centro de Salud de Elizondo, Iñaki Marcos, con el fin de informarle sobre la campaña y hacerle llegar la propuesta de colaboración del Ayuntamiento. En la campaña se informará a la ciudadanía sobre la posibilidad de solicitar médico de familia y pediatra euskaldun, para lo cual se buzoneará un díptico y se colocarán en el Centro de Salud de Elizondo y en el Consultorio de Irurita sendas cajas para recoger las copias de las instancias que los ciudadanos/as realicen. También se ha grabado un vídeo de 4 minutos que por razones técnicas no han podido visionar los miembros de la Comisión. Las asociaciones a favor del euskera, Euskalgintza, de Baztan se encargarán de la difusión de dicho vídeo.</i></p>



4. 2014ko euskara saileko aurrekontuetarako egitasmo proposamenak.

Maitane Maritorenak argitu duenez, 2014ko aurrekontuetara begira, zenbait ekimen birpentsatu beharra dago, adibidez, Udako Jostaldia. Jarduera gehientsuenei eutsiko zaie bertze udalekin elkarlanean egiten diren proiektuak baitira, Baztanek bakarrik egin ezin izanen lituzkeenak (kanpianak, Etxepare saria... kasu).

Halaz guztiz, bada kontu-sail bat aldatu dena. Herri Liburutegiari Euskara ataletik ematen zitzaion diru-sailtxoa desagertuko da eta inbertsioen ataleko kontu-sailak, 4.900 €koak, segituko du. Horretarako Udalak Baztango Herri Liburutegiko funtsa berritu eta handitzeko egiten duen inbertsiorako irizpideak eta jarraibideak ezarri ditu.

Zinegotziak aurten izan daitezkeen egitasmo berriren proposamenik ote duten galdegin die batzordekideei:

Mari Karmen Irungaraik euskara ikasteko aukera doan eskaintzea aipatu du. Zinegotziak proposamen hori ezinezkoa dela jakinarazi du.

Pello Iriartek honako hau aipatu du: hainbat herritan (Agoitzen, Sakanan...) zinema euskaraz botatzeko eskariak gero eta gehiago direla jakinarazi diotela. Hemen Baztanen halako eskaintza udan egiten dela eta neguan zinea ematearen proposamena Kultura Batzordean agertu zela jakinarazi du Maitanek, eta 2014an egitekotan gelditu zirela.

Mari Karmen Irungaraik Pilar ikastetxea zeneko zinematokia nola dagoen galdegin du. Zinegotziak gaia Kultura batzordean atera dela azaldu du eta horren gainean kudeatzaileari galdeginen diola.

Mari Karmen Irungaraik ikuskizun baten aipamena egin du: Ramon Agirrek eta Inazio Tolosak *Ez dok amairu* taldearen gainean apailatutako umerozko musika-antzezlan, "Kokakola eta barea". Ikus: <http://www.eitb.com/es/cultura/detalle/192699/6/koka-kola-eta-barea--en-teatro-principal-23-al-25-enero/>. Baztanera ekartzeko proposamena.

4º Presupuestos de la Sección municipal de Euskera.

La Concejala Maitane Maritorenak expone que de cara a los presupuestos de 2014, hay que repensar algunas iniciativas, como por ejemplo, la campaña infantil de verano Udako jostaldia. Se mantendrán la mayoría de las actividades ya que corresponden a proyectos que se llevan a cabo conjuntamente con otros ayuntamientos, tal es el caso de diversas campañas, el Premio Etxepare...

Hay una partida que se modificará, la relativa a la Biblioteca Pública, que desaparecerá de la concejalía de Euskera pero se mantendrá como inversión con una asignación de 4.900 €. Para dicha partida que tiene la finalidad de renovar y ampliar el fondo de la Biblioteca Pública de Baztan, el Ayuntamiento ha establecido unos criterios y pautas de seguimiento.

La concejala pregunta a los miembros de la comisión sobre las propuestas nuevas que tienen: Mari Karmen Irungarai propone ofrecer clases de euskera gratuitas. La concejala informa de que esa propuesta no es viable.

Pello Iriarte informa de que, según le han comentado, en muchas localidades (Aoiz, Sakana...) son cada vez más numerosas las solicitudes para proyectar cine en euskera. Como hace saber la concejala, en Baztan se proyectan películas en euskera en verano y la propuesta de proyectarlas también en invierno ha sido comentada en la Comisión de Cultura, acordándose que este año 2014 se ofertarían.

Mari Karmen Irungarai pregunta sobre la situación de la sala de cine del que fuera el colegio El Pilar. La concejala se compromete a preguntar al gerente sobre ello.

Mari Karmen Irungarai comenta que hay un espectáculo humorístico de música y dramatización, "Kokakola eta barea", basado en el grupo Ez dok amairu, que interpretan Ramon Agirre e Inazio Tolosa. Ver aquí: <http://www.eitb.com/es/cultura/detalle/192699/6/koka-kola-eta-barea--en-teatro-principal-23-al-25-enero/>. Se propone traerlo a Baztan.

5. Eskoletako aurrematriculazioaren epea eta D ereduaren aldeko lana

Aurten arrematriculazioak otsailaren 20tik 26 artio iraunen du. Joan den urtean Udaleko Gizarte Zerbitzuetako eta Euskara Zerbitzuko teknikariak aurrematriculazio garaian haurra A eredu

5º Plazo de prematriculación y labor a favor del modelo D.

Este año el periodo de prematriculación será del 20 al 26 de febrero. El año pasado los Servicios Sociales y de Euskera del Ayuntamiento hicieron una reunión informativa con las familias, unas



<p>matrikulatu zuten bortz bat familiarekin bildu ziren informazioa emateko eta azkenean, familia horiek haurrak D ereduari matrikulatu zituzten.</p> <p>Aurten aitzinetik gaia lantzea ikusi da beharrezkoa, haur elizondarren gurasoekin bederen. Alkateak sinaturiko gutuna igorriko zaie. Bertzalde, Euskara Zerbitzuko teknikariak haurrak aurre-matrikulatzekotan dauden gurasoendako hitzaldi informatiboa emateko eskaintza egingen dio San Frantzisko Xabier Ikastetxeko zuzendaritzari.</p>	<p><i>cinco, que habían prematriculado a sus hijos en el modelo A y, finalmente, las familias matricularon a sus niños/as en el modelo D. Siendo eso así, este año se ha estimado la conveniencia de trabajar el tema con antelación. Se enviará a las familias de Elizondo que tienen niños a escolarizar por primera vez el curso que viene una carta informativa firmada por la alcaldesa. También la técnica del Servicio de Euskera se ofrecerá para dar una sesión informativa en el Colegio San Francisco Javier.</i></p>
<p>6. Udalak Eusko Ikaskuntzarekin duen hitzarmena eta proiektu-proposamenak.</p> <p>Aitzineko Euskara batzordearen bilkuran aipatuenez, Baztango Udalak Eusko Ikaskuntzarekin hitzarmena sinatua du eta Udalak urtero elkarte horri ematen dion diruaren trukean ikerketak, hitzaldiak eta saio zientifikoak jasotzen ditu. 2013 urtean hitzaldi bat baizik ez baitzen antolatu, gainerako guzria, 1.200 €, aurtengoari metatu zaio eta 2014an Eusko Ikaskuntzari ikerketa proiektu handiagoa eskatzeko aukera dago.</p> <p>Azaroko Euskara batzordean horretarako ideiak eta proposamenak ekartzeko eskatu zuen Maitane Maritorea zinegotziak. Batzordekideek orduan aipatu zirenak eta berriak aztertu dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none">- Aitzineko baserriko tresnak gaitzat hartu eta bideo bat prestatzea, Julen Mitxeltorenen iradokizuna izan zena. Pello Iriartek ikerketa etnografikoa eginga du, Baztango nolabaiteko hiztegi etnografikoa osatzeko, Baztango Museoa dauden pieza guztien fitxak eginak baititu. Material hori jatorrizkoa da, argitaragabea, eta Udalak argitaratzeko egokia izan daiteke. Maitane Maritorea zinegotziak Kultura ataletik egin daitekeela argitu du.- Etxeen izenen edo oikonimiaren gaineko ikerketa arras interesgarritzat jo da, baina Eusko Ikaskuntzak berak egiteko baino ikerketa beka baten bidez bideratzekoa, Baztango ikertzaile gazteek aukera izan dezaten.- Euskarak Baztanen duen eragin edo inpaktu ekonomikoaren gaineko ikerketa diziplinartekoa ere aipatu da Eusko Ikaskuntzari eskatzeko ikergaitzat. <p>Ikerketa proiekturako ideia gutxi daudela ikusirik,</p>	<p>6º Propuestas de proyecto dentro del convenio de colaboración entre Eusko Ikaskuntza / Sociedad de Estudios Vascos y el Ayuntamiento.</p> <p><i>Como se expuso en la anterior reunión de la Comisión de Euskera, el Ayuntamiento de Baztan tiene firmado con la Sociedad de Estudios Vascos / Eusko Ikaskuntza un convenio de colaboración mediante el cual el Ayuntamiento hace una aportación anual a la Sociedad y ésta ofrece sesiones de carácter científico (conferencias, investigaciones...). Como en el 2013 solo se organizó una conferencia, el restante de la oferta académica, 1.200 €, se acumula a la del año 2014. Así pues, este año existe la opción de solicitarle a la Sociedad científica un proyecto de investigación de más envergadura.</i></p> <p><i>En la reunión de noviembre la concejala Maitane Maritorea solicitó a los miembros de la comisión que trajeran sus ideas. Se comentan ahora las que se citaron en la pasada reunión y otras nuevas:</i></p> <ul style="list-style-type: none">- <i>Confeccionar un vídeo sobre los aperos de caserío que hoy están en desuso, propuesta por Julen Mitxeltorena. Pello Iriarte informa de que él ha realizado un trabajo en esa línea, un diccionario etnográfico de Baztan, ya que se basa en la catalogación de todas las piezas etnográficas de Baztango Museoa. Se trata de un material original, inédito y por ello, interesante para su publicación por parte del Ayuntamiento. Maitane Maritorea informa de que la publicación sería de la concejalía de Cultura.</i>- <i>La investigación sobre los nombres de las casas u oiconimia se estima muy interesante pero más que para encargar</i>



<p>Eusko Ikaskuntzari berari bertze udalerriekin zer ikerketa proiektu landu izan duen galdegitea erabaki da. Euskara teknikariak Eusko Ikaskuntzaren webgunean arakatuko du ikusteko zer egin duten bertze udalerrietan eta zer gai lantzen diren.</p>	<p><i>el trabajo a Eusko Ikaskuntza, para que sea realizado mediante una beca de investigación a la que puedan concurrir jóvenes investigadores/as baztaneses/as.</i></p> <ul style="list-style-type: none">- <i>El impacto del euskera en la economía de Baztan, tema interdisciplinar, también ha sido propuesto como tema de investigación para el proyecto a encargar a Eusko Ikaskuntza.</i> <p><i>Visto que no hay muchas ideas como tema para una investigación, se acuerda consultar con la Sociedad de Estudios qué tipo de proyectos suele llevar a cabo con otros ayuntamientos. También la técnica del Servicio de Euskera recabará información al respecto en la página web de Eusko Ikaskuntza.</i></p>
<p>7. Galde-eskeak eta nork lezarkeena</p> <ul style="list-style-type: none">- Pello Iriartek Udako Euskal Unibertsitateak, UEUK, harengana jo duela jakinarazi du. Orain bi urte Amaiurren egin zen bidetik, aurten antzekorik antolatzeke asmorik ote dagoen galdegin diote.- Maitane Maritorea zinegotziak honako hau jakinarazi du: 2014ko aurrekontuetan merkaritza arloan errotuluak euskaraz paratzeko diru-laguntza publikorako deialdia sartuko da. Izan ere, orain artio Udalak ematen zituen zenbait diru-laguntza (euskaraz jarduten duten hedabideei ematen zaizkienak, erraterako) hemendik aitzina hitzarmen bihurtuko dira hala behar baitu legez. Halere, diru-laguntzetarako diru-sail bat izanen da eta horretan, adibidez, euskara ikasteagatik ematen direnak sartuko dira. Multzo horretan aurreikusi da 2014an merkaritza arloan errotuluak euskaraz paratzeko diru-laguntza publikorako deialdia sartzea.- Edurne Arrietak honako hau aipatu du: Dolores Redondo idazleak argitaratu zuen <i>El guardián invisible</i> liburuaren euskarazko itzulpenak, <i>Zaindari ikusezinak</i> Baztango euskara ez duela aintzat hartzen. Idazleak bilduma bereko bertze liburu batzuk argitaratzeko asmoa jakinarazi baitu, hurrengo itzulpenetan itzultzaileari Baztango euskara zaintzeko eskaera egitea proposatu du.	<p>7^a Ruegos, preguntas y otras aportaciones.</p> <ul style="list-style-type: none">- <i>Pello Iriarte informa de que la Universidad Vasca de Verano, UEU, se ha dirigido a él para preguntarle si este año se preve la realización de algún tipo de iniciativa semejante a la realizada hace un par de años en Amaiur.</i>- <i>La concejala Maitane Maritorea informa de que en los presupuestos para 2014 se introducirá una partida nueva dirigida a dotar una convocatoria de ayudas públicas para la rotulación comercial en euskera. Como algunas subvenciones del Ayuntamiento (las que se dirigen a medios de comunicación en euskera, por ejemplo) por Ley han de pasar a ser convenios de colaboración, quedará una partida para subvenciones en la que, juntamente a las ayudas al aprendizaje de euskera, se incorporará la convocatoria de ayudas públicas para la rotulación comercial en euskera.</i>- <i>Edurne Arrieta comenta que en la versión en euskera del libro El guardián invisible de la escritora Dolores Redondo, que lleva por título Zaindari ikusezina, no se han cuidado las formas del euskera hablado en Baztan. Sabiendo que la escritora tiene prevista la publicación de una trilogía, y de cara a subsanar este hecho en los dos volúmenes que faltan, propone que se le haga llegar esta solicitud al traductor. Los miembros de la comisión hacen saber que el segundo</i>



<p>Batzordekideek bigarren liburua plazaratu dela argitu eta arazoa argitaratzailearena dela aipatu dute. Jatorrizko bertsioan, gaztelaniaz, ere dauden akatsak aipatu dira.</p> <ul style="list-style-type: none">- Mari Karmen Irungaraik Gartzainen <i>Paso peatonal sobreelevado</i> bide seinalea dagoela aipatu du. Maitane Maritorea zinegotziak zaharra izanen dela ohartarazi du.- Maitane Maritorea zinegotziak jakinarazi du 2014an Iruritaren gaineko ikerketa soziolinguistikoa, Paula Kasaresek egina, argitaratzeko asmoa dagoela.	<p><i>volumen ya se ha editado y estiman que es un tema que corresponde a la editorial, de hecho en la versión original en castellano también existen fallos en ese sentido.</i></p> <ul style="list-style-type: none">- <i>Mari Karmen Irungarai informa de que en Gartzain existe una señalización viaria con el texto Paso peatonal sobreelevado. La concejala aclara de que se trata de una señalización ya existente, no nueva.</i>- <i>La concejala Maitane Maritorea informa de la intención de publicar en 2014 un estudio sociolingüístico sobre Irurita, realizado por Paula Kasares.</i>
<p><u>HURRENGO BILKURA</u> martxoaren 31n, astelehenarekin, 18:30etan izanen da.</p>	<p><u>LA PRÓXIMA REUNIÓN</u> tendrá lugar el 31 de marzo, lunes, a las 18:30.</p>